



ZER DA

JOHANNESBURG

2002?

**ELA**

EUSKAL SINDIKATUA

# Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi Bilera

(Rio + 10 ere deitzen zaio)



# JOHANNESBURG 2002

Beste ezer baino lehen,  
Johannesburgeko goi-bileraz  
hausnarketa laburra  
egin dezagun.

**R**io de Janeiron (Brasil) egin zen –1992ko ekainean– Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia (UNCED). "Lurraren Goi Bilera" deitu izan zaio topaketa hari. Giza Ingurumenari buruzko lehenbiziko Nazioarteko Konferentziaren (Stockholm, 1972) 20. urteurrenean egin zen aipatu Konferentzia; han bildu ziren 179 herrialdetako politikariak, diplomazialariak, zientzialariak, sindikatuetako eta GKEetako ordezkariak... Helburua, berriz, honakoa zuten: gizakion jarduera sozio-ekonomikoak eta ingurumena elkarrekin nola uztartu asmatzea. Konferentziaren sasoi berean egin zen Rio de Janeiron bertan "GKEen Foro Globala" deritzona. Ordura arte gobernuz kanpoko erakundeek inoiz bildutako ordezkari-kopuru handiena elkartu zen Foro hartan, munduaren garapenaz, ingurumenaren geroaz eta egoera sozio-ekonomikoaz beren ikuspegia plazaratzeko asmotan betiere.

Ingurumen-gaiak izan zituen nagusi 1972ko Stoc-kholmeko Konferentziak, ingurumenaren degradazioa eta "mugaz haraindiko poluzioa" deritzona bereziki. Azkena aipatu dugun kontzeptu horri berebiziko garrantzia eman zitzaion, poluzioak muga geografiko edo politikorik ez duela aintzat hartzen eta jatorrizko lekutik urruti dauden herrialde, ingurune eta gizakiei ere eragiten diela nabarmentzen hasia baitzen ordu-rako. Stockholmeko Konferentziaren ondorengo ha-markadetan are zabalagoa egin zuten kontzeptua eta horren baitara bildu zituzten benetan nazioez ha-raindikoak diren hainbat gai, munduko herrialde eta eskualde guztien erantzun bateratua eskatzen dutenak guztiak ere, eraginkortasunez ekingo bazaie behintzat. Poluzio-mota guztiak, klimaren aldaketa, ozono-geruza txikiagotzea, edateko uraren eta itsasokoaren erabilera eta kudeaketa, gehiegizko deforestazioa, lurzorua degradazioa eta desertizazioa, hondakin arriskutsuen isurketak eta biodibertsitatea murriztea ziren, besteak beste, aipatu gaiak.

Hurrengo urteetan beste honako hau ere aitortu behar izan zuten herrialdeetako ordezkariak: herrialde edo eskualde bakoitzeko ingurumen-arazoak (urbani-zazio estentsiboa, deforestazioa, desertizazioa, natur baliabideen urritzea...) mundu osoa arriskuan jartzearaino heda daitezke. Izan ere, herrialde pobreenen ekonomia-oinarria eta giza egitura ahuldu egiten dute aipatu arazoek, edo areagotu egiten dituzte gatazka eta tentsio sozialak, baita errefuxiatuen joan-etorria ere. Mundu osoko interes politiko, sozial eta ekonomikoei izaki

bakarra bailitzen eragiten die ingurumenaren degra-dazioak, bai herrialde aberatsetan bai pobreetan.

1992ko Lurraren Goi Bileran onartu zuten bereziki munduko agintariak ingurumenaren babesa eta natur baliabideen kudeaketa pobreziaren eta azpigarapena-ren inguruko gaiekin nahitaez lotu beharra dagoela. 1987an **Ingurumenari eta Garapenari buruzko Mun-du Batzordeak** "Garapen jasangarria" deritzonaren definizioa dugu jarrera horren erakusle: "Oraingo premiak asetzen dituen garapena, geroko belaunaldiek beren premiak asetzeko izan behar duten gaitasuna arriskuan jarri gabe betiere". Garapen ekonomikoari ala ingurumena babesteari lehenetasuna ematen die-tenen eskariak asetzearren sortua da, bada, "garapen jasangarria" kontzeptua.

Horregatik du garrantzi historikoa Lurraren Goi Bilerak: Lurraren ingurumen-arazoak egoera sozio-ekonomikoari eta justizia sozialari estu-estu lotuta daudela ohartarazi zuen lehenbizikoz. Bestalde, gizar-tearen, ekonomiaren eta ingurumenaren premiak epe luzera aztertu behar direla frogatu zuen Goi Bilerak. Beste honako hau ere nabarmendu zuen: eskualde jakin bateko herritarrak pobreak badira eta nazio-ekonomia ahulduta badago, ingurumena ez da ongi ibiliko; ingurumena gehiegi ustiatzen bada eta balia-bideak alferrik gastatzen badira, gizakiek sufritu egiten dute eta ekonomiak hondatu egiten dira. Lekuan lekuko erabaki txikiak ere (egokia nahiz desegokia izan) mundu osoan eragin dezakeela, hori ere nabar-mendu zuen Konferentziak.




Ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-faktore guztiek elkarrekin duten lotura azpimarratu zuen Rio de Janeiroko bilerak. Hurrengo urteetan nazioarteko lankidetzeta eta politikak garatzeko lagungarri izango ziren ingurumen- eta garapen-gaiei buruzko agenda zabala eta plan berria diseinatzea, horixe izan zen goi-bileraren xede nagusia.

Mundu osoan (eskualde, nazio edo herrialde bakoitzean zein nazioartean) gauzatzeko moduko helburutzat aldarrikatu zen Rio de Janeiron "garapen jasangarria" kontzeptua. Hona zer azpimarratu zen bereziki: gure premiak asetzeko sortzen ditugun ekonomia-, **ingurumen-** eta **gizarte-arazoak** orekatzeak eta **elkarri uztartzeak** erabateko lehentasuna du Lurrean giza biziak irauteko; bestalde, uztartze hori lortzea badago baldin eta denok elkarlanean jarduten badugu. Oreka eta uztartze hori bideratzeko, ordea, zer ekoizten eta kontsumitzen dugun, nola bizi garen, nola lan egiten dugun, elkarrekin harremanetan nola jartzen garen eta erabakiak nola hartzen ditugun..., hori guztia aztertu beharra dago, baita hori guztia egiteko modu berriak asmatu beharra ere. Erabateko berrikuntza izan zen kontzeptua eta -ideia berri guztiek egin ohi duten legez- eztabaida bizia eragin zuen bai gobernuen artean bai gobernuen eta herritarren artean jasangarritasuna lortzeko bideak direla eta.

Johannesburgen, berriz, atzerako begiratu kritikoa egin dio munduak 1992ko Garapenari eta Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Konferentziari (UNCED) eta azken hamar urteotako azterketa osoa eta eraginkorra egiten saiatu da.

*Mundu osoan gauzatzeko moduko helburutzat aldarrikatu zen "garapen jasangarria" kontzeptua.*





Rio de Janeiron hitzartutako konpromisoak betetzen ari ote ziren begiratu beharra zegoen, batetik. Bestetik, ordea, sakonki jorratu beharra zegoen lehenbiziko goi-bilera hartan bazterrera geratu zen beste gai bat: alderdi soziala.

Hasieran espero zirenak baino dezente parte-hartzaile gutxiago izan ditu Johannesburgeko gailurak: 40.000 bat lagun elkartu ginen, aurreikuspenek 65.000 inguru bertaratuko zirela bazioten ere.

Ekitaldien antolakuntza izan da Johannesburgeko Goi Bileratik azpimarratzeko moduko ezaugarrietako bat. Lehenbiziko aldiz, NBE arduratu da gailur ofizialaz gain "alternatiboa" ere antolatzeaz. Hiru goi-bilera izan direla esango genuke:

## **Sandton-go goi-bilera ofiziala.**

Garapen Jasangarriari buruzko Sandtongo Mundu Goi Bileran 190 gubernetako ordezkariak eta beste zenbait lagun elkartu ziren (7.000 guztira) Rioko Goi Bileratik egiteko zegoena aztertzeko eta bultzada emateko.

Deigarria da benetan hiriko merkataritzagune nagusietakoa izatea Sandton: bulego-eraikin handiz dago inguratuta. Sandtongo plaza nagusian, berriz, BMWren stand handi-handi bat zegoen, enpresa horrek garapen jasangarriari egingo omen dion ekarpenaren (hidrogenozko autoa) publizitatez josita.

Johannesburgen bildu ziren gizarte zibileko ordezkarietatik atek erabat itxita izan zituen bilera horrek. Han bildutako erabakitze-sistemak ilun

samarrak ziren (beltz-beltzak ez esatearren), gizarte zibilari bizkarra emanda erabiltzen baitziren. Jakina, garatzeko zegoen gailurraren alderdi soziala beste baterako utzi zuten.

Arazoa ez da helburuak finkatzea –horixe da errazena–, haiek gauzatzeko programak, ekintza-planak eta finantzazioa adostea baizik. Baina ez da horretarako borondaterik egon Johannesburguen. Ameriketako Estatu Batuak (AEB) izan dira txapeldun borondatezaren lehiaketa horretan, bere interes partikularrak mundu osoarenaren aurretik jarri baititu.

Beste behin ere, aukera ederra galdu dute hainbat eskarik (pobrezia ezabatzea, edateko ura izatea, nekazaritzan jarduteko eskubidea, lan duina izatekoa, haurren lana debekatzea...) neoliberalismoaren interesak zirela medio. Erabateko porrota izan da, hortaz, Johannesburgeko gailurra alderdi sozialetik begiratuta, baita ingurumenekotik ere.

## **Nasrec-eko goi-bilera "alternatiboa"**

Lehenxeago genioenez, Nazio Batuen Erakundeak antolatu du –lehenbizikoz– foro sozialaren goi-bilera, ofizialaren paraleloan egin dena. Esan dezagun gizarte zibilaren zati bat bere saretan harrapatu eta isilaraztea lortu duela NBEren foroak, edo honen jokoa onartu egin duela gizarte zibilaren zati batek. Hainbat eta hainbat hitzaldi, mintegi, tailer..., ezinezkoa zen guztietara joatea. Gainerakoan, hitzaldi batzuen garrantzia aparte utzita, inondik ere ez dago Nasrekeko



goi-bileraren balorazio positiborik egiterik. Harrigarria iruditu zitzaigun, bestalde, honako hau: zenbait herrialdetako gobernuren (Hego Koreakoak, Australiakoak, Japoniakoak, Belgikakoak...) babespean egin ziren hainbat tailer, baita foro sozial horretako partaidetza ere.

Izugarrizko "ideia-ekaiztea" izan zen Nasrekeko foroa, zenbait arrazoi zirela medio: kohesio eza (baita koherentzia eza ere batzuetan), parte-hartzaileen aniztasuna (NBEko erakunde ofizialak, unibertsitateak, institutu erdiofizialak, GKE morderoa, ingurumenkontseiluak...) eta antolakuntza penagarria. Hori guztia zela-eta apenas lortu zen txosten batean biltzea foroan aztertutako guztia.

## Lurrik gabekoen mugimendua (mst)-via campesina.

Hego Afrikako lurrik gabeko nekazarien mugimenduek ez zuten bat egin Nasrekeko foroaren arauekin (gailur "alternatiboan" parte hartzen ez zirelako utzi, besteak beste). Indar handia du Afrikan lurrik gabekoen mugimenduak, eta are handiagoa izan lezake. Via Campesinakoak bezalaxe, NBEk eraturako ekitaldi guztietatik kanpo utzi zituzten, ordea. Beraz, Shareworld ("denontzako mundua") izeneko konferentzia paralelora bildu ziren. Ia bi mila lagun (Hego Afrikako bederatzi probintzietakoak) elkartu ziren Shareworlden, Hego Afrikako biztanleriaren zati handi baten ordezkari gisara.

Aipatzekoa da, bestalde, abuztuaren 31n gertatutakoa, goi-bilera batzuek zein besteek egindako manifestazio-deialdien egunean, alegia.

Bi manifestazio-deialdi zeuden. Bata, ANC alderdiak (Hego Afrikan agintea duenak) deitua zen; horrekin bat egin zuten, hasieran, Nasrecen elkartutako erakundeetako batzuek. Nazioarteko sindikatuek ere deialdi horrekin egin zuten bat. Bi mila bat lagun bildu ziren guztira. Lurrik gabeko nekazarien mugimenduek, berriz, beste manifestazio-deialdi bat egin zuten. Zenbait erakunde ekologistak, Via Campesinak, hainbat GKEk eta ELAk ere bat egin zuten bigarren deialdi honerekin. Alexandra auzotik abiatu zen manifestazioa (10.000 bat lagun); zazpi bat orduko ibilbidea egin ondoren (hamar kilometro besterik ez ziren arren), Sandtonen amaitu zen.

2002ko iraila

